

KARKARA

ORIOKO ETA AIAKO ALDIZKARIA / 2009ko maiatzaren 22a / 261. zenbakia / 20. urtea

- HERRIKO KONTUAK **Aizperroko plan partziala** 05
- KIROLA **Unanue Asobalera** 09
- AIAKO BERRI **Asentzioko feria** 11

- IRITZIA **Onetsine Arrizabalaga** 18
- MOILA BAZTERRETIK **Garbiñe Manterola** 19
- HERRITARRA **Eneritz Erkizia** 25



12 urte Galarretan,
ezker pareta **ofizio**

Pilotari eta arkitekto lanak uztartzen ditu Borja Agirresarobe oriotarrak. Galarretan hamabi urte egin ditu jada profesionaletan

PERTSIANAK
A K O M A Z
Aluminio, PVC
Venezianak
Motorrak...
Tel. 943 83 01 89 Magikorta 600 70 52 27

Orioko
Ogia
ORIOGI
OPIL OKINDEGIA
Frontoi ondoan
Ifnoa: 943 83 01 89

SOLOZABAL
autoeskola

Eusko Gudari, 30-1, ezk
telefon: 943 83 08 12

PATXI OLIDEN
Hemengo haragia.
Etxeko produktuak: hipoki, odolki,
txekorra, txerizo, kroketak...
Eusko Gudari, 25 Tel. 943 83 00 10

SARASUA ERRETEGIA
Plater bereziak: Arrain zopa
Arrain eta haragi erreak
Eusko Gudari, 29 **ORIO** Tel: 943 83 00 05/
943 13 25 32

sinergia investigación fisioterapia
FISIOTERAPIA Garbaitz Arilegi eta Natalia Wiesner
NUTRICIONISTA Garbaitz Arilegi
ibai ondo, 1, behe-oina | ORIO | 943 13 05 77 ~ 685 71 85 95

Portu
ERRETEGIA
Santxo Etxeak Automa 29
943 89 44 04
20009 AIA-ORIO
burdindegia
burdindegia eta erretegia

TANATORIO ZARAUZ
EUROPUNERARIAS TALDEA
Fileta eta zerbitzu orokorrak
Araba kalea, 35 Zarauz
Tel: 943 89 49 37 / Fax: 943 89 49 41
e-mail: hanespil@hanespil.net

TAILER MEKANIKOA
MANTEROLA S/L
TYRROKAK - BALBULAK
Santiago ezuea - 18 postakutxa
Tel. 943 830 743
Fax. 943 134 634
E-mail: tmmanterola@euskalnet.net
20 810 ORIO - GIPUZKOA
Euskoako balbula
AENOR kalitate ziurtagiriduna

URAITZ
burdindegia
burdindegia
Euzkadi 3, Txar 943 83 18 97

ZAPATA KONPONKETAK
Lanpostuetan 0900 - 1300 eta 1600 - 1900
Lanpostuetan: 0900 - 1400
Berekoak onartzen dira, Oriz

tel/fax: 943 89 00 69
Euzkadi kalea, 4 - 20006 ZARAUZ
URBIDE
ITURGINTZA, BEROGINTZA
GASA, BAINU ERAKUSKETA
Plazaren 10. 20006 Zarauz

URANGA
burdindegia
Opari, menaje eta erremintak
fer.uranga@euskalnet.net
Telefax: 943 8312 36 Eusko Gudari, 5

ASADOR
XIXARIO
Zarauzko Gudari, 2
Tel: 943 830 019 - ORIO

Sukalde eta bainuen erreformak
XANTI MUJIK
Igeltseritza
699 46 76 21
943 13 10 37

Zaragueta
Eskola **ORIO**
telefonoa: 943 89 40 52
e-mail: 012137aa@hezakuntza.net

KARKARA

ORIOKO ETA AIAKO ALDIZKARIA

Kultur etxea
20810 ORIO
943 83 15 27

karkara@karkara.com

Editorea

Karkara taldea kultur elkarte

Zuzendaria

Ana G. de Txabarri

Erredakzio burua

Lore Berasaluze

Erredakzio taldea

Mikel Aranzabal, Pat Cowie,
Miren Etxeberria, Eli Lasa eta
Jabier Zabaleta

Publizitatea

Pat Cowie

Publizitatearen diseinua

Lore Berasaluze

Testuen zuzenketa

Miren Etxeberria eta
Jabier Zabaleta

Ale honetako laguntzaileak

Jon Agirresarobe,
Onetsine Arrizabalaga,
Imanol Esoain, Ainara Peña eta
Goretti Subinas

Diseinua

KARKARA taldea eta Goio Arana

Banatzzaileak

Ane Etxabe eta
Ander Mujika (Orio)
Ainize Sayago (Aia)

Inprimategia

Gertu Koop. E. (Oñati)

Lege gordailua

SS-346/90

ISSN

1132-1105

Tirada

3.100 ale

KARKARAK ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen edota
iritzien erantzukizunik.

KARKARAN argitaratutakoa berreman
daiteke, osorik edo zatika, baldin eta
iturria aipatzen bada.


Etixerik ez zait faltako

IMANOL ESOAIN (ERRIKOTXIA BERTSOZALEEN ELKARTEA)

Enpresario arrakastatsu
bat naiz ta ez da gezurra
enpresa baten ta sei etxeren
jabe zintzo ta zuhurra.
Everest puntan egin nahi dut bat
baina bankua bai xuhurra!
Inork ez zidan eman nahi izan
falta zitzaidan apurra.

Ez da merkea Everest puntan
etxe baten eraikuntza
denei eskatu eta guztiek
ezetz, zakurraren putza!
Beti erantzun berdinarekin,
ez zen arrazoi kamutsa:
*Hainbesterako ez da iristen
Gobernuaren laguntza.*

Beste aukerarik ez zait gelditzen
ai ze pena, zenbat malko!
Bankuak eman ezin didanez
langileei kendu beharko,
abokatuei agindu ERE bat
presta dezaten biharko.
Ez dute ondo hartuko baina
etxerik ez zait faltako!



PUBLIZITATE PREZIOAK

IRAGARKIA ALERO JARRITA

Modulu bat	12,00 €
Bi modulu	24,00 €
Hiru modulu	36,00 €
Lau modulu	48,00 €
Sei modulu	72,00 €
Zortzi modulu	96,00 €
Orrialde erdia	120,00 €
Orrialde osoa.....	204,00 €

IRAGARKIA BEHIN JARRITA

Modulu bat.....	16,00 €
Bi modulu	31,00 €
Hiru modulu	47,00 €
Lau modulu	64,00 €
Sei modulu	95,00 €
Zortzi modulu	127,00 €
Orrialde erdia	174,00 €
Orrialde osoa.....	306,00 €

Publizitatea kontratatzeko Pat Cowierekin hitz egin (695 78 07 20) edo karkara@karkara.com
Prezio hauei BEZA gehituko zaie

LAGUNTZAILEAK



Euzko Jaurlaritzak

Kultura Sailak
diruz lagundutako
hedabidea

Aseguru kontuak

Denok pasa behar izan ditugu bizitzan une latzak, familiar edo lagun bategi betiko adio esaten digunean. Sentimenduak albora utzita, gordin-gordin, negozio ere badiara heriotzak eta gehienok, aseguratzaileen bat kontratatzen dugu gastuoi aurre egiteko. Horixe da gure kasua ere: *Santa Lucia* hartu genuen eta hile-ro ate ondora etortzen zen txukun jantzitakoren bat kuota kobratzera. *Fraternidad* aseguratzaileak *Santa Lucia* jan zuen eta haiek hartu zuten aurrekoen txanda. *Cisne* hartu zuen gero *Fraternidad*.

Baina, adi, aseguratzaile horrekin jarraitzen duzenok, ate ondoko kobratzaileak kendu egin baititu, bezeroei abisurik eman gabe. Begiratu fakturak eta azkena martxokoa edo otsailekoa dela konturatuko zarete. Eguneratu egin behar dira -Valentziako 902 505 777 telefonora dei dezakezue.

Itxura denez, telefonoz esan digutenez, Cisneko langileak ari dira bezeroei deika. Guk, badaezpada, aurrea hartu dugu eta abisua eman nahi dizuegu, gero ezustekorik izan ez dezazuen.

HERRITARRA

Zorionak!

Maiatzean jokatuak GRAVN txapelketako finalean Eneko Galarraga eta Tibur Etxeberria oriotarrak izan ziren Gipuzkoako selekzioaren ordezkarietak bi. Txapelketa Gipuzkoa, Errioxa, Araba, Bizkaia eta Nafarroako selekzioen artean

jokatzen da modalitate guztietan.

Tiburri dagokionez, nagusitasun osoz gailendu dira txapelketan. Ligaxkako partida guztiak irabazi ostean, finalerako zuzenean sailkatu ziren.

Eneko dagokionez, hasierako ligaxkan, min hartuta zela eta, ez zuen Bizkaia, Araba eta Nafarroaren aurka jokatzetik izan. Baina bai Errioxaren aurka. Taldeko lehen postuan amaitu zuten, finalerako sailkatuta zuden. Finalean nork jokatu zuen zalantza zen eta, selekzionatzaileak Eneko jokatzera erabaki zuen. Renobales alegiarra lagun zuela, bizkaitarren aurka jokatu zuten. Partidaren hasiera nahiko gogorra egin eta gero, gipuzkoarrek hartu zuten aurrea, 17-11. Baina zabaleko pilota baten bila zihoala, Ugaitzek min hartu zuen aulki bat jota. Ondorioz, bizkaitarren suspertzea etorri zen, 18na berdinduz eta 20-18 aurrea hartuz. Baina amaiera bikaina egin eta txapela Gipuzkoara etorri zen.

Zorionak bie!

ORIOKO PILOTA ELKARTEA

Pena

Pena sentitu dugu Jokin Izagirrek azken KARKARAN idatzi duen iritzi artikulua irakurritan. Ikastola defendatu nahi eta ez zaio modu hoberik bururatu Orioko eskola publikoak Franco garaiko *escuela nacional* haiekin parekatzea baino!

Duela 38 urte, bazen Orion eskola bat, nacionala, egun publikoa deritzona. Horrelaxe idatzi du, di-da, orduko eskola frankista eta gaur egun-

go eskola publikoa moduezin traketsagoan lotuz eta, lotura hori eginez, iraindu egin ditu Zaraguetako guraso, irakasle eta ikasleak.

Jokinek badaki Orioko eskola publikoan euskaraz ematen direla klaseak aspal-dian, ikastolan bezalaxe; eta badaki euskal kulturaren oinarritutako irakaskuntza delagurean eskaintzen dena ere. Badaki, baita ere, euskaltzale askok lan handia egin behar izan zutela hori horrela izan zedin eta, gaur egun ere, euskararekin eta euskal kulturarekin konprometitutako kolektiboa dela eskola osatzen dutenena.

Jokinek hori guztia badaki, eta, hala ere, gu iraintzea erabaki du, horrela berea hobeto defendatuko duela. Baina nork bere burua famatzeko besteak gutxietsi beharra ahuldade seinale baidiz ez da.

Amorrazioa baino gehiago, pena eman digu, hara!

ZARAGUETA ESKOLAKO
GURASO ELKARTEA

Bukaezineko zehaztapenak

Nire gutunean aldaketak orain ere abian daudela adierazi nahian, adibide bat jartzen nuen. Eta, benetan, ez dakit nondik ateratzen dituzun zure ondorioak, *kontzeptuak nahasi*. Ez nintzen ari curriculumez, idazteko espazio mugatua duen KARKARAKO adibidea besterik ez zen. Benetan buru kritiko oso berezia behar da horretarako.

Nik aipatzen nuen adostutako dokumentua dekretuak izan, eta horrek taldean landutako curriculumarekin

oinarri zuzena du.

Argibideak ematen dituzu eta oso ondo, baina ematen hasita, ondo argitu behar direla deritzot. Orain 6 urte bildu ziren aipatzen dituzun talde guzti horiek, eta horizen hain zuzen, ikastolen borondatea. Baina, inork baino hobeto dakizunez, ordurako lan handia zegoen egin.

1990eko Ikastolen 1. Batzar Nazionalean egiten da lehen aipamena eta lehen urratsak ematen hasi. 1996ko 2. enean, erabakia hartzen da proiektua abiada osoan jartzeko. 1998rako egitasmoa egin zegoen eta eztabaidatuta ikastolen esparruan. 2000rako berriz, curriculumen arteko estalduraren ikerketa; eta baita gure artean ezagunak diren adituek egindako 50 txostenekin liburu eder bat argitaratzeko bidean zegoen *Euskal Curriculumak: Kultur ibilbidea*. Adituen Ekarpinak ere. Hurrengoan, nahi baduzu, azalduko dugu 2000tik aurrera, 6 urtetan talde bakoitzak egindakoa.

Eskolarako abiapuntu izango den lana egin dago, nahiz eta benetakoa, indarrean jartzea eta horretarako materialak, liburuak, irakaslegoa... prestatzea, hemen dika aurrera egin beharko den. Horretan ere Ikastolak ari dira buru-belarri sartuta.

Ematen duzun argibidea baino gusturago irakurriko nuen, curriculumak, eskolaz kanpo, gizarteratzeko eman beharko lirakeen pausoen berri. Izan ere, lan hori zure edo zuk ordezkatzeko duzun Udalbiltzaren esku geratu zen eta benetan ez dakik zertan dagoen.

ANTONIO CAMPOS

ARKAITZ Taberna

Pintxoak,
plater konbinaluak
eta ogitarleko mundialak

ABELARTEA, 4 TEL: 943 83 16 57

ATC TORREALDAY
aholkularitza

Agentea: Olariaga

Bereizitasunak:

- ✓ Enpresa berriak sortzeko diru-laguntzen kudeaketa. Txekin.
- ✓ Aseguru artekaritza.
- ✓ Pinken administrazioa.

Bazokide 4. behe. Tel: 943 13 37 20 Fax: 943 83 52 98 www.atorrealday.com e-mail: olariaga@olariaga.com

KOSTA TAILERRA EGOKITZEKO LANAK KONTRATATZEKO LEHIAKETA ERE MARTXAN DA

Aizperroko plan partziala onartu da Alkate Dekretuz

Hainbat erabaki hartu ditu Udalak egunotan: Kosta Tailerra egokitze eta hondartzako salbamendu zerbitzua emateko lehiaketak abiarazi ditu, eta Ikastolari diru laguntza zuzenean ematea eta Aizperroko plan partziala onartu ditu.

Orioko Arau Subsidiarioetako 20. sektoreko –Aizperroko– plan partzialari lehen onarpena eman zion Orioko Udalak maiatzaren 7an, Alkate Dekretu baten bitartez.

Patxi Gastaminza Santa Coloma arkitektoak idatzitako eta Iñigo de la Paz Zumalakarregik aurkeztutako plana jendaurrean dago orain, ekainaren 5a arte –maiatzaren 15eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu baitzen iragarkia–, proposamena aztertu eta nahi duenak alegazioak aurkez ditzan.


Uraren Euskal Agentziak eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituretako Departamentuak dagozkien txostenak eman ditzaten, plana haiei bidaltzea ere onartu zen idatzi berean.

KOSTA TAILERREKO LANAK

Kosta Tailerra egokitze lanak kontratatze lehiaketa publikoa ere iragarri du Udalak, Alkate Dekretu bidez. 4 hilabete izango ditu lehiaketaren irabazleak Carlos Abadías Banzoren proiektua gauzatzeko.

Baldintzei dagokienez, 305.740,19 eurotan zehaztu du Udalak lizitazioaren kopurua, baina hautagaiek zenbateko hori hobetzeko aukera izango dute.

Ekainaren 11 baino lehen aurkeztu beharko dira lanak Orioko udaletxeko idazkari-tza-kontu hartzailetzan, aste-



Goitik begiratuta, Aizperroko gunea nolakoa izango den adierazten du plan partzialean ageri den plano honek. ORIOKO UDALA

lehenetik ostiralera, 08:30etik 14:30era. Jasotako proposamen guztiak ekainaren 15ean irekiko dira, 12:00etan, ekitaldi publiko batean.

SOROSPEN ZERBITZUA

Orioko hondartzetako zaintza, salbamendu eta laguntza zerbitzua eta Orioko udal kanpinoko igerilekuaren zaintza eta

botikin zerbitzuaren kontratazioaren lehiaketara inor ez denez aurkeztu, berriz egin dute lehiaketa lizitazioaren zenbatekoa 87.941 eurotik 105.000 eurora (BEZ barne) igoz. Maiatzaren 21a baino lehen aurkeztu beharko dira proposamenak.

Hondartzetako eta udal kanpinoko salbamendu zerbitzua kontratatze lehiaketara inor ez denez aurkeztu, berriz egin da lehiaketa lizitazioa 87.941 eurotik 105.000 eurora (BEZ barne) igoz

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxe berria eraikitze, Orioko Herri Ikastolari, 1.070.000 euro zuzenean ematea onartu zuen Udalak, maiatzaren 12ko ez-ohiko udalbatzarrean

IKASTOLARI LAGUNTZA

Aurtengo aurrekontuetan jaso bezala, Orioko Herri Ikastolari, DBHko ikastetxe berria eraikitze, 1.070.000 euro zuzenean ematea onartu zuen Udalak, maiatzaren 12ko udalbatzarrean. Ondorioz, maiatzaren bukaeran kobratuko ditu ikastolak Udalari abendutik ordura arte aurkeztutako kontu ziurtagiriak. Hemen-dik aurrerakoak, berriz, eskera egin eta hilabetea pasa aurretik jasoko ditu.

UMEAK ETA HELDUAK ARITZEN DIRA ESKOLAK HARTZEN

Pintura eskolako lanak ikusgai ekainaren 5etik 7ra

Hiru egunez, Mari Jose Iparragirreraren pintura eskolako ikasleek aurtengo ikasturtean olio-pinturaz eta tenperaz egindako lanekin erakusketa egingo dute.

Ekainaren 5etik 7ra bitartean, erakusketa berezia izango da zubi ondoan dagoen Ibai Ondo kaleko pintura eskolan: Mari Jose Iparragirre margolariaren 40 ikaslek aurtengo ikasturtean egindako lanekin osatuko dute bilduma. Irakasleak margotutako oihalak paretetik kendu eta ikasle bakoitzaren pare bat lanek -80 margo guztira- ordezkaturiko dituzte lokal horretako hormak eta astoak.

Erakusketa inauguratzen denean, haurrentzako merienda ere izango da.

Ikasturtea bukatu dela ospatzeko, urtero antolatzen du ekaina aldera ekintza bereziren bat Mari Jose Iparragirrek. Orain bi urte, esaterako, mendi txangoa egin zuten eta, iaz, berriaz, merienda ederra. Aurtun, ordea, pinturarekin zerikusi zuzena duen zerbeit egin nahi zuelako antolatu du erakusketa, ikasturte osoan egindako lanak jendaurrean aurkezteko eta, bide batez, tailerra ezagutzeko aukera izan dezaten herritarrek.

PINTURA ESKOLA

Lau urte daramatza Mari Jose Iparragirrek pintura eskolak ematen. Astelehenetik osti-



Umeak, tailerrean, eskola hasieran.

KARKARA

Oihala asto gainean jarri eta olio-pintura eta tenpera bidez marrazten ikasten dute, koloreak nahastuz

ralera izaten dira haurrentzako eskolak, 17:00etatik 19:00etara. Sei urtetik gorako

umeak dira ikasle gehienak eta, Mari Jose irakaslea etorri zain izaten dira atean, bostak puntu-puntu. Primeran pasatzen dutela esan digu irakasleak eta, denbora gutxian, asko aurreratzen dutela.

Oihala asto gainean jarri eta olio-pintura eta tenpera bidez marrazten ikasten dute, oinarritzko koloreak nahastuz eta, kolore berriak sortuz.

Tailerra libre dagoenean, Mari Jose Iparragirre bera aritzen da lanean, bere sormenari ateak zabalduz.

LABUR

DEIALDIA

Argazkirako

KARKARAK 100. zenbakia atera zuenean egin genuen bezala, 1989. urtean jaio-takoekin argazki dotorea atera nahi dugu, aldizkariaren 20. urteurrena ospatzeko. Hortaz, aurtun 20 urte egin edo beteko dituzten neska-mutilak gonbidatzen ditugu ekainaren 6an, 12:00etan, Herriko Plazara, inguruan egingo dugun fotorako.

GAZTETXEA

1.115 sinadura

Maiatzaren 9an, gaztetxearen sorreraren aldeko 1.115 sinadura bildu dituztela jakinarazi zuen OKK gazte asanbladak. Jendaurrean jarri zituzten sinadura guztiak, nahizue-nak ikusteko.

Bestalde, maiatzaren 29ra bitartean, alderdi politiko guztietako ordezkariekin biltzekoak dira, gaztetxearen sorreran aurrera egiteko.

MUSIKA ESKOLA

Musikaldi 09an

Danbolin musika eskolako ikasleak Euskal Herriko Musika Eskolen 10. jaialdian, Musikaldi 09an, izan ziren maiatzaren 16an. 1.500 musikari bildu ziren guztira Mungian, kalez kale, kalejiran. 31 izan ziren horieatik oriotarrak: txistulariak eta esku-soinu joleak.

"JUAN LARRAZPU" ERAIKUNTZAK, S.L.
(Jon Arruti)

- Baserrietako igeltsaritza eta egurrezko estrukturetan adituak
- Etxeen berrikuntzak:
 - fatxadak
 - teilatuak
 - sukaldeak
 - bainu gelak...

Tf: 665 718 966 (Jon Arruti) Estropalari, 30-3B, Orio

zkue

Tf: 943 13 04 38

edutegia

ANTILLA

jatetxea

Amstel Kaler, 2 - Tel: 913 84 20 00

UZTAILA OSORAKO ETA ABUZTUKO LEHEN HAMABOSTALDIRAKO BEGIRALE BILA DABILTZA

Udaleku irekietan izena emateko epea zabaldu dute

Udaleku irekiek herriko hainbat haurren denbora librea beteko dute udan. Horretarako, izena emateko epea zabaldu du Txurruuskik; baita begiraleak bilatzeko deialdia egin ere.

Maiatzaren 28an eta 29an eman beharko dute aurten izena udaleku irekietan parte hartu nahi duten haurrek. Izen emate orria bete beharko dute egun horietan, 18:00etatik 19:00etara, kultur etxean eta gizarte segurantzako txartelaren fotokopia eta diru sarreraren ziurtagiria eraman beharko dira. Txur-rumuskik adierazi duenez, ez dute 29tik aurrera inskribatutako haurrik onartuko.

Urtero bezala, 3tik 12ra urte bitarteko haurrak jasoko dira—udalekuak hasterako, 3 urteak beteta izan beharko dituzte— eta bi txanda egingo dira: lehenengoak uztaila osoa hartuko du eta 65 euro kostako da. Bigarrena, aldiz, abuztuko lehen hamabostaldian izango da eta 35 euro balioko du. Azken txanda hori osatzeko 40 haurrek eman beharko dute izena, gutxienez; bertan behera utziko da, bestela.

GURASOENTZAT BILERA

Data zehatza aurrerago eman-
go badute ere, ekainean gura-
soentzako bilera egingo dela



Era guztietako jolasak egiten dituzte haurrek udaleku irekietan.

KARKARA

adierazi du Txurumuski taldeak. Udalekuaren nondik norakoa eta programa berriari buruzko informazioa eman go dute eta zalantzak argitze ko una izango dela gogorazi nahi diete gurasoei.

BEGIRALE DEIALDIA

Uztaillean, hilabete osorako, edota abuztuaren lehenengo hamabostaldirako, heziketa parte-hartzailean oinarritutako udalekuetan aritzeko gonbita luzatu du Txurru-muskik, begirale lanak egiteko deialdia eginda. Interesa-

tuekKostaTailerraZ/G/20810
Orio edo txurrumus-
ki.orio@hotmail.com helbi-
dera bidali beharko dute curri-
culuma. Maiatzaren 28a izan-
go da horretarako azken
eguna.

Deialdira aurkezteko, hamasei urte beteta izan beharko dira eta euskaraz hitz egiteko eta idazteko gaitasuna izan. Aisialdiko begirale zein zuzendari titulua, esperientzia, oriotarra izatea, talde lanerako eta harremanetarako gaitasuna eta urte guztian Txurumuskirekin lan

**Gurasoentzat
bilera egingo da
ekainean,
udalekuen nondik
norakoak eta
programaren berri
emateko**

egiteko motibazioa baloratu-
ko dira.

Curriculumarekin batera, beharrezkoa da aurkezpen testu idatzi bat gaineratzea.

Kinkiadenda- Uma arropa

argine.

www.lasconet.com/argine
Tel. 943 13 48 89

75eko DESKONTUA FAMILIA
UGAZTEN TXARTEL ARKIN



RAMIRO

Jaunartze
erreportajeak

30-300 euro artean

943 83 10 48

www.fotoramiro.com



**Automóviles
ZARAUTZ**

CITROËN ZEPHIR ZEPHUR ZOLA

*Industria Carmat
oficina Zarautz
1990*

ZARAUTZ. TEL. 043 13 11 50



Denboraldi bikaina egin du Mikel Unanuek Lábaro Toledo taldean.

WWW.TOLEDOTALONMANO.COM

AZKEN PARTIDA ERABAKIGARRIAN BI GOL SARTU ZIZKION PALMA DEL RIORI

Mikel Unanue Asobal Ligara igo da Toledorekin

Azken jardunaldira arte itxaron behar izan zuten txapeldun izateko eta, 18 urterekin Arraterekin Asobal Ligan debutatu ondoren, berriz gorengo mailara itzultzeko aukera du Mikel Unanuek.

Ohorezko B mailako azken jardunaldian, maiatzaren 10ean, Mikel Unanue oriotarrak Asobal Ligarako txartela lortu zuen Lábaro Toledo eskubaloit taldearekin, ARS Palma del Riori 32-20 irabazita.

Iazko denboraldiaren zati handia hanka hautsi eta jokatu ezinik pasa ondoren, gogotsu zebilen aurten Mikel eta titular izan da denboraldiko partida guztietan, joko antolatzaile modura. Azken partida erabakigarrian ere bi aldiz sartu zuen gola.

Partida amaitutako uneak gustura gogoratzen ditu Unanuek.

Zaleek joko eremua hartu zuten, suhiltzaileek festa-rako aparra bota zuten kirol-degi inguruko kaleetan, jokalariek hiria zeharkatu genuen autobus batean, iturrian blai bukatu genuen zale eta jokalariek, agintariekin harrera, ongi etorria... Lehen aldiz sartuko da Lábaro Asobal ligan eta hiri guztiak ospatu zuen gurekin.

GOGOTSU ASOBALERAKO

Lehendik ere aritu da Unanue gorengo mailan, Eibarko Arrate taldean, 18 urte zituela. Orduan oso gaztea zen eta, debutatu bai, baina ez zituen minutu asko jokatu Asobal ligan. Orain aukera hori ez duela galdu nahi esan digu: *Orduan baino askoz eskarmentu handiagoa dut gaur egun eta goi mailan jokatzeko gai naizela erakutsi nahi dut. Koadrilako dozena bat lagun etorri zen gure azken*

Koadrilako dozena bat lagun etorri zen azken partidara eta beraiei eskaini nahi diet garaipena —Mikel Unanue—

partidara eta haiei nahi diet eskaini garaipena, beti-beti nire alboan egon direla esker-tzeko.

Maiatzaren 14an izan zuen Toledoko taldeko zuzendari-tzarekin bilera, datorren urtean bertan jarraitu ala ez erabakitzeko. Unanuek han jarraitu nahi du, baina oraindik ez daki hurrengo denboraldian non arituko den.

Oriore, berriz, maiatzaren 28an itzuliko da, lagunekin eta familiarekin igoera ospatzera.

LABUR

ARETO FUTBOLA Mailari eutsi diote

Orioko Tabernakeko mutilak Nazional B kategorian izango dira datorren denboraldian ere, azken partida 0-2 irabazita mailari eustea lortu baitzuten.

12. bukatu dute denboraldia, 32 punturekin, 9 partida irabazita.

ARRAUNA Gipuzkoako txapeldun

Maiatzaren 17an, Gipuzkoako Trainerilletako Txapelketa irabazi zuten Orioko seniorrek. 13 minutu, 18 segundo eta 96 ehuneko behar izan zituzten Pasaia San Pedroko estropada eremua bukatzeko.

Bestalde, ziaboga onenaren saria jaso zuen Iraikoitz Etxeberria patroiak.

FUTBOLA Emaitza paregabeak

Urrezko puntuak lortu zituzten azken jardunaldian Orioko futbol taldeko jokalariek: kategoriari eutsi zioten regionalek, jendez lepo zegoen Mendibeltz zelaian jokaturako partidaren. 2-0ko aldeko emaitzarekin bukatu zuten Ilintxa taldearen kontrako norgehiagoka eta aurten-go denboraldia.

Ohorezko kategoriara igo diren infantilak, berriz, Gipuzkoako txapeldunak dira maiatzaren 16az geroztik. Debako Hamaiak Bati 2-4 gailendu zitzaion Orioko taldea eta etxera ekarri zuten irabazleena kopa.

Jubenilek ere 3 puntuak lortu zituzten, Alerruri 5-2 irabazita.

Emakumezko kadetek, berriz, 3. bukatu zuten F-11ko Kopa, hilaren 9an.

MAITE URANGA ETA ZORIONE SAN SEBASTIAN | PALA JOKALARIAK

“Apusturik ez, eta ez ziren gure alde izango, gainera”

Getariako emakumezkoen pala txapelketa ari dira jokatzeko Maite eta Zorione. Tibur Etxeberriarekin entrenatzen dute, handinahirik gabe, ikasteko.

Nolatan hasi zineten palan jokatzeko?

Zorione: Kiroldegian pala ikastaro bateko kartela ikusi nuen eta bertan hasi nintzen. Irakasleak, bat-batean, etortzeari utzi egin zion eta gure kontura hasi ginen.

Maite: Beranduago hasi nintzen ni. Astean behin edo bitan elkartu eta txandaka bikoteak aldatuz jokatzeko genituen partidak. Denbora-ekin bikoteak egonkortzen joan ziren eta orain, serioago hartu eta Zorione eta biok Getariako txapelketan eman dugu izena.

Nola entrenatzen duzue?

M: Tibur Etxeberria dugu entrenatzaile eta, herriko frontoia konpondu bitartean, Zaraguetan aritzen gara.

Z: Entrenatzeko inor ez genuen eta Tiburrekin egoskortu ginen. Hari deitu eta berehala onartu zuen.

Bestalde, Zaraguetako sabaia oso baxua da eta berehala jotzen dugu pilotarekin.

M: Bai, desiratzen gaude behingoz herriko frontoiko konponketak buka ditzaten. Horrelako pilotaleku ederra dugu eta zer gaizki zainduta dagoen!

Munduko txapelkunarekin entrenatzen? Onak izango zarete.

M: Zazpi partida dira guztira eta lehenengo lauak galdu ditugu: 22-14, 22-20, 22-10 eta 22-6. Pentsa zein onak garen! Hala ere, hurrengo asteetan ere ilusio berarekin han



Orain arteko partida guztiak galdu arren, irribarretsu dago bikotea.

KARKARA

Entrenatzeko inor ez genuen eta Tiburrekin egoskortu ginen. Hari deitu eta berehala onartu zuen

izango gara.

Z: Galtzeagatik ez gara goi-belduko. Hasiberriak gara eta ikasten ari gara oraindik.

Tibur izan al da ikusten?

Z: Ez, eta hobeto! Kar, kar.

M: Berak ere bere partidak izaten ditu eta ostiraletan ez

Herri sarreran, teilaturik gabe, dena irekita, jendea ikusten... Getariako frontoia oso polita da

dauka gu ikustera joaterik. Baina desiratzen egongo da zihurrenik. Bide batez, berrari eskerrak emateko aprobe-txatu nahi dugu tartetxo hau.

Z: Ostegunetan, 20:00etatik 22:00etara entrenatzen dugu eta etxeko sofán egon zitekeen, lasai-lasai.

Berezia izan behar du Getariako frotoian jokatzeko. Zer sentitzen duzue?

M: Hasieran lotsa ematen zigun. Orion jarduten garenean inor ez da egoten, baina han...

Z: Han, ostirala izanik, zahar guztiak hurbiltzen dira txikiteoan dabiltzan bitartean eta, gainera, txapelketa emakumezkoena bakarrik izanik... hor utziko dut kontua. Baina aldarte onean.

M: Eskerrak aurkarien artean primeran konpontzen garen, barre egiten baitugu.

Apustuak ere izango dira tartean.

Z: Apusturik ez da izaten, eta izatekotan ere, ez ziren gure alde izango.

M: Oriotik ere joaten dira gu ikustera; eskertzeko bada. Herri sarreran, teilaturik gabe, dena irekita... oso polita da Getariako frontoia, baina aurreneko partidaren oso gaizki pasa genuen, urduri geunden eta.

Eta euria egiten duenean?

Z: Kiroldegian jokatzeko dugu. Orain arte, behin bakarrik gertatu zaigu.

Aurkariekin ondo moldatuta, palazaleen koadrila ere ingo zenuten, ezta?

M: Uste dut txapelketa bukatutakoan afaria egin behar dugula denok.

Beste oriotar bikote bat ere ari da txapelketan. Derbia non eta noiz?

Z: Naroa eta Arantzazu Beldarrarrain izaba-ilobak ere ari dira, bai, eta gu baino hobeto, gainera; gutxienez bat irabazi dute eta.

M: Ez dugu hitz egin oraindik, baina Getarian jokatu dugu seguru asko.

JOSU LIZASO | AROTZA ETA NEKAZARIA

“Nekazari herria izanik, Aiari abere azoka ere badagokio”

Indagarateberri baserrikoa da Josu eta, igandeetan, jende asko hurbiltzen zaio baserrian dituen animalia bereziak ikustera. Asentzio ferian, abere horiek eramango ditu jendaurrera.

Azken urteetan, ez da abere askorik ikusten feriatan.


Orokorrean, gero eta abere gutxiago dago eta arropak eta barazkiek hartu dute beren lekua azoketan. Gaur egun, Itziarkoaz gain, inguruan ez dago abere azoka garrantzitsurik eta Aiari, herri nekazaria izanik, bat izatea dagokiola uste dut. Lehen, Asentzio feriak ospe handia zuen eta berriz ere berreskuratu beharra du.

Zerk bultzatu zaitu azokan parte hartzera?

Antolatzaileek dei egin zidaten, azokari bultzada eman nahi ziotela eta. Ondo iruditu zitzaidan eta, zergatik ez dut parte hartuko, bada? Gainera, animaliek jende gehiago erakarriko dute.

Animalia berezi asko dituzu. Zein eraman badakizu?

Llama bat, ardi eta ahuntz ipotxak, lau adarreko aharia, Kamerungo ahariak, behi eskoziarra... ez dira inguruko baserrietan ikusten diren abereak, baina ez dakit zenbateraino diren arraroak.



Josu Lizasok eta familiak animalia asko dituzte baserrian.

KARKARA

“Ez dira inguruko baserrietan ikusten diren animaliak, baina ez dakit zenbateraino diren arraroak”

zentzu askorik ikusten, ordea, arrazoi jakinik gabe ekartzeari. Gero, Indagarateberrin nekazal turismoa jartzerakotan, lekua soberan genuen eta nire asmoak indarra hartu zuen. Kanpoko zelaian itxitura egin eta animalia ezberdinak ekartzen hasi nintzen. Ez dugu animalien inguruko aipamenik egiten ez duen bezerorik.

Semeak ere gustura izango dituzu.

Bai, baina nireak ohituta daude. Besteenak dira gehien disfrutatzen dutenak. Igandeetan, eguraldi ona egiten badu, ikaragarritzko jendetza hurbiltzen da animaliak ikustera, oinez edo autoz, umee-kin gehienetan.

Animalia lasaiak dira eta itxiturarekin ez dago inongo arriskurik. Ume batzuk animaliak ikutzen ere ausartzen dira.

Asentsio ferian ere abere bereziek jendearen ikusmina piztea espero dut.

Bertako animaliarik ez al duzu?

Jakina. Astoa, behiak, idi gazte pare bat... Horietatik astoa bakarrik eramango dut azokara.

Saltzeko edo erakusteko?

Erakusteko bakarrik. Bali-

teke ahuntzen bat edo beste saltzea, baina ez noa asmo horrekin.

Nolatan hasi zinen animalia bereziekin?

Animaliak ikaragarri gus-tatu izan zaizkit beti eta, nola ez, batez ere bereziak. Ez nion

ITZALA
kartelak jokatzen
azkeneko
tel. 943 83 12 59

iñaki argazkiak
caperochipi
ezkontzeko asmarik bai?
www.ikapero.com/ezkontzak
659378751
ikapero@ikapero.com

Peluteria eta estetiako mirtoa
ZSS
- Tintak, begietatik eta kurrutatik nabaratuak
- Deflektorak, tintak, kurrutak
- Azkazuak, makilak, makilak
- Pielak
- Depilazioak
See Riholaz, 2 Tel: 943 83 51 70

ZUMINTZA
- Tintak
- Pielak
- Deflektorak
- Depilazioak
SOLARIUM
tel: 943 83 17 58

10:00ETAN HASITA ARRATSALDERA ARTE LUZATUKO DA JAI GIROA

Aiako baserritarrak izango dira Asentzioko protagonista

50 saltoki izango dira azokan eta garai bateko feria hartu nahi izan du oraingoan ardatz Udalak.

Maiatzaren 24an izango da Asentzio feria gurean. Fruta, barazkiak, ezti, janari biologikoa, lekaleak, kontserbak, ganadua... hartuko ditu azokak, 10:00etatik 14:00etara.

Orain arteko edizioetan ez bezala, orde, baserritarrek beren produktuak saldu eta erakusteko saltokiak jarriko dituzte aurtan. Ekoizle saltzaileek lehentasuna izan dute, hortaz, mahaiak zeini eman erabakitzerakoan.

Igor Iturain alkateak adierazi digunez, feriari kutsu berria eman nahi izan diote, garai bateko azoka mota berreskuratze aldera: *Azken 22 urteko feriak ezer berririk jasotzen ez zuela uste dugu, festa eguna baino ez zela. Hala, ko aldaketekin Aiak nekazaritzarekin duen lotura berreskuratu eta urte batzuen buruan azoka garrantzitsu bihurtzea espero dugu.*

Herriko plazan eta aparkalekuan jarriko dira parte hartuko duten 50 postuak: 20 plazan-ogia, gazta, ezti, loreak, ardoak, barazkiak, fruta, hestebeteak, eta hainbat baserriko produktu-, eta gainerako 30 aparkalekuan-talagileak, eko-nekazaritza, janari ekologikoa, baserriko lanabesak, kontserbak, abereak eta animali bitxiak erakusketa-. Postu horien artean izango dira aiarak ere: animaliak ekarriko dituzte Ubegun baserrikoek-esnetarako behiak-; Landarbidetzarrekoek-haragitarako behiak-; Argutzeako eta Salbardinekoek-ardiak-; Azpigorriakekoek, Erreiztagoikoak eta Gaztandizabalekoek-ahuntzak-; Ibarrolabeko baserrikoek eta Zulaikakoek-zaldiak-; Indagarateberri-



Mota askotako animaliak ikusiko dira aurtengo ferian.

KARKARA

Baserriko lanbideak berreskuratzeari ere garrantzi berezia eman nahi izan diote antolatzaileek

koek-animalia bitxiak:llamak, mufloiak...-; Iruretaundikoek-astoak-; eta Migel Arribabalagak-emuak-.

Horrez gain, Orortegi eta Agerreburu baserriko gaztagileek ere mahaia izango dute, Aialdeburukoak barazkiekin izango dira, Txatxarrokoak janari ekologikoeekin eta Errastiko ardoa eta txakolinarekin.

Baserriko lanbideak berreskuratzeari ere garrantzi berezia eman nahi izan diote antolatzaileek eta ogia, odol-

kiak eta gazta nola egiten diren, ardiei ilea nola moztzen zaien eta zaldiei ferrak eta idiei uztarriak nola jartzen zaizkien ikusteko eta ikasteko aukera izango da.

Eguraldi txarra egiten badu, frontoira pasako dira mahairik gehientsuenak.

FESTA ARRATSALDEAN

Arratsaldean, lau eta erdiko pilota partidak izango dira: buruz burukoan, Azkoitiako Andreu Azpeitiako Larrañagaren kontra arituko da aurrena. 17:00etan hasiko dute lehia, frontoian. Atzetik, Burladako Arrastoa eta Landiribarrek osatutako bikoteak Bidegoianeko Renobales eta Senperenarekin neurtuko dituzte indarrak.

Eguna bukatzeko, Astiazaran anaiek eta Leirek bertaratuak dantzan jarriko dituzte, 19:00etatik aurrera hasiko duten erromeriarekin.

LABUR

HITZALDIAK

Emakumea hizpide

Hitzez baserriko emakumeen elkarteak hitzaldia antolatu du maiatzaren 28rako. Zarauzko Sanz Enea kultur etxean izango da, 10:00etan, eta elikaduraz, migrañaz, klimaterioaz, diabetesaz eta X sindromeaz arituko da Pedro Ramos sendagilea.

ARGAZKI LEHIAKETA

Baserrien xarma

Udalak abian jarri duen Aiako 4. argazki lehiaketak baserriak izango ditu ardatz. Gaintontzean, orain arteko baldintza berak mantenduko dira: argazkilari bakoitzak 4 foto aurkez ditzake, gehienez, eta inoiz argitaratu gabeak, izan behar dute. Argazki guztiak paperean aurkeztu beharko dira, 30x20 cm-ko neurrian eta formatu horizontalean; digitalak izanez gero, fotoak jasotzen dituen CD bat ere aurkeztu beharko dute parte hartzaileek.

Lehiaketan parte hartu nahi duten guztiak irailaren 30erako aurkeztu beharko dituzte lanak kultur etxean.

ZERGAK

Egutegia

Ura eta zaborrari dagokion urteko lehen hiru hilabeteko zerga ekainaren 6a bitartean ordaindu behar da. Ondasun Higiezinari dagokiona, berriz, ekainaren 30a baino lehen.

ATXILOKETAK

Lapurreta

Maiatzaren 14an lau lagun-21 urteko 3 gizonetako eta adin txikiko bat- atxilotu zituen Ertzaintzak taberna batean lapurreta egin zutelakoan.

AIAKO LEHIOA

Herria handitzen ari dela eta

Lagunek esaten didate egunero Aiara igotze horrek nekagarria behar duela izan, hainbeste bihurtze eta bide estu horietatik egunero igaroz. Nik, aldiz, konturatzeke egiten dut bertarako bidea, automatikoa jarrita bezala, begietako makarrak oraindik kentzeke. Laurgain gaina hartzean, elizako kanpandorrea ikusten da eta orain urte batzuk ikusten ez ziren etxe berri politak ere ikus daitezke.

Nik egunero egiten dut bide hori, eta gainera, bide bera egin nahi duten bizilagun ugari etorri da herri honetara. Denbora gutxian izugarri hazi da gure herrira.

Haurreskolako langile naizen aldetik esan beharra daukat gela bakar batekin hasi ginela eta gaur egun bi gelak

beteta ditugula. Oraintxe pasa berri da hurrek izena emateko epea, eta beldur pixka bat ere izan dugu 25 haurtxo gehiago jaiotzeaz daudela jakitean. *Non sartuko ditugu?* izan da gure lehen galdera; baina ez gurea bakarrik, baita gurasoena ere, kanpotik etorri eta umea haurreskolara eramatea

Oraintxe pasa berri da umeak haurreskolan apuntatzeko epea, eta beldur pixka bat ere izan dugu 25 haurtxo gehiago jaiotzeaz daudela jakitean

lasaitasun handia baita.

Garai batean aitona-amonek laguntzen bagintuzten ere, gaur egun aitona-amona asko lanean ari dira. Gainera, kanpotik etorria bazara, herri berri batera, ba imagina ezazu noraino hel daitekeen kezka hori.

Kabitu ezina aipatuta, uda-

Aiton-amonek laguntzen gintuzten garai batean; egun lanean ari dira. Eta herri berri batera etorria bazara, kezka handiagoa da

letxea daukagu parez pare. Obretan buru belarri dabilta eta kulturetxera mugitu beharra izan dute. Geuk ere behar bada hala egin beharko dugu, dinamika horri jarraiki; aldameneko eraikuntzara mugitu beharra izango dugu 25 txiki horiek nonbait sartu behar baditugu, behintzat! Izatez, zabala bada eta uda aldera bero handirik ez dugu izango; neguan, berriz, kandela goxoekin batera berotu ahal izango gara. Gainera gure sei begiez gain, santu guztien begirada ere hor izango dugu, zer iruditzen?

GORETTI SUBINAS

TXOKOAK ETA JENDEA

**100 urte ospatzen**

Hemen duzue Justina bere ehungarren urtebetzea ospatzen. Ospakizun ederra egin zuen familia osoarekin batera. Bertan izan ziren, seme-alabez gain, beste 70 bat pertsona ere; horien artean 27 biloba, 20 berbiloba eta bidean diren beste bi ere.

Egun polita izan zen Justinentzat eta hemendik ere gure zorionik beroena bidali nahi diogu.

*Bi paretak ez omen
dira beti, planoetan
irudikatu bezala
kantxan ateratzen.
Bi aukera izaten
dira halakoetan:
botea arrasto
barruan sartzea
edo planoan
kontrakantxako
marra mugitzea.
Norabidea
marraztea da,
azken finean,
pilota.*

*KARKARAK anaia
Joneskin bildu du
Borja Galarretan.
Hika irakurriko
duzue elkarrizketa.*

JON AGIRRESAROBÉ

**Txori txiki batek esan zidak
umetan ez hintzela kaleaka
bizitzak pilotzen zituena.**

Gure garaian frontoiak funtzio soziala zian herritik kanpoko eskola batean genbiltzanontzat. Hori bai, zahar-rragoekin jostatu behar izaten genien beti, eta haien aurrean isildu egin behar. Idatziak ez egonagatik, frontoiaren legeak dituk horiek. Orain ibiltzen ote da inor atzeko txokoan?

Erremonteak herrian izan duen tradizioaz hitz egin izan ziguk Iturainek bere kroniketan. Baina hamabost urterekin erremontean hasteko norekin egin behar dek topo?

Zortea izan nian Juan Mari Itxasorekin topo egitea. Borondate onekoa eta langilea dek, haren bultzada eta kemena aprobetxatuta, boskotea biltzen gintuan.

Hasiera frustrante samarra dek erremontea. Ezin ezker



J. AGIRRESAROBÉ

BORJA AGIRRESAROBÉ | ERREMONTA JOKALARIA

“Erremontea herrietara eramane behar dek, jendeak ezagutu dezan”

pareta jo gabe *buena* egin.

Hala dek. Baina ez gintuan hutsetik hasi, esku pilotan moldatzen denak errazago hartzen dizkik erremonteko jarrerak: kolokazioa, botea...

Inoiz utzi al dio pilotak jolasa izateari?

Jakina, maila ona ematea desio bihurtu zenetik. Bakioitzak bere tokia hartu nahi izaten dik, galdu edo irabazi, nabarmen gelditzen dek batek besteak baino gehiago jokatzen duela ikusten denean... Baina lan zaila genian: denak izango hituan ni baino indartsuagoak. Gazteena eta gainera, txikiena. Afizionatuetan hogeita bi urteko egindako mutilen aldean kolpetxikia genian.

Egunkariko erreporteak jasotzen dituen osabaren artxiboan aurkitu diat aipamena. Debuta egiterazindozten gazteen ezaugarriak aipatzen dizkiate. Batek kolpe indartsua, besteak sakea, hire argazkiaren azpian haxe jartzen dik: *oso langilea*.

Egia dek ez naizela ezau garri garbiko pilotaria, eta denetik pixka bat dugunak ez gaituk sailkatzen hain errazak. Lanarena bikotean duan pisuaren arabera ere badek: atzelari gutxiagorekin ari haizenean zama hire gain eroriko dela jakinda ateratzen haiz kantxara. Bestetan alde-rantziz, atzelariak egindako lana errematatzea dek hire egitekoa. Askotan, horixe dek lanik zailena aurrelariontzat.

1997ko San Nikolas jaien bezperatan egin huen debuta. Begia belztuta agertzen haiz argazkian?

Entrenamendu batean begiaren bueltan jaso nian pilotakada, paretean aire sartzeraz nindoala noranzko okerra hartu zian pilotak eta begi ondo belztuta bueltatu ninduan etxera, debutatu aurreko astean. Pentsatzen jarrita, pilotaren gogortasuna eta abiadura ikusita, egia dek gauza gutxi gertatzen direla.

Hamabi urte profesional-tan. 30 urterekin azken saltoa ematea falta zaik.

Hamabi urte astean bi-hiru partidu jokatuz, urte asko dituk. Ez gaudek elitean, baina baigurelekuan ondo egonkortuta. Gorabeherak izaten dizkiagu pilotari guztiok, batzuetan joko maila politagoarekin eta besteetan eskasagoarekin izaten gaituk. Baina enpresak eta katedrak erregulartasuna baloratzen ditek. Egiten dakigunari etekina aterra zioagu.

Noiz esaten du pilotariak: *sasoiko natxiok*?

Egia dek urte guztian ezin dela fisikoki topera egon, kolpea jaisten dek, nerbioa hiltzen dek, txispa gabe sentitzen haiz. Baina, askotan, fisikoki zezena bezala egon arren, kantxan ez dituk gauzak nahi bezala ateratzen. Gorputza ondo dagoenean gehiago eskatzen diok hire buruari, eta askotan ez dik nahi bezala erantzuten. Jokoan blokeatzea izaten dek arrisku latza. Buruak jartzen dizkik muga handienak.

Hasieran katedrak barkatzen dik, baina gero ez.

Pilotariari gauzak ondo ateratzen ez zaizkionean, katedrari eskubidea eman zaiok nahi duen guztia esateko. Pilotariok nortasuna behar diagu jendea aurre egin gabe egoerari buelta emateko, txistuak entzun arren, hurrengo sakearen erretoan zentratzeko.

Dirutzak jokatzen dituk eta txistu egin edo zalaparta ateratzea ulertzekoa dek, norbera ere konturatzen dek ondo ari den edo ez. Baina burla asko ere entzun izan diagu, eta batzuetan gehiago kostatzen dek jendearen grazia aguantatzea.

Hiru pilota galdu dituk segidan. Takoa jo duk lehenengoan, gutxigatik baina bi pareta kontrakantxara joan zaik bigarrenean eta azken erretoa gora. Badakik, jendea txistuka hastekotan dela. Laugarren sakea airez sar-



tzeko modukoa dek.

Sartzekotan konbentzitu-ta sartu behar dek. Segundo erdian hartu behar dek erabakia.

Galarretara ikusle zintzoa ere joaten dek, ikuskizunarekin liluratuta dagoena.

Hiru jaialdi izaten dituk

astero, leku eta ordu berean, 35-40 pilotariz osatutako koa-droa elkarren kontra. Gaur egun dauden kontsumo auke-rak ikusita, harrigarria egiten zaidak astean pare bat aldiz Galarretara urreratuko den jendea egotea.

Txapelketa gutxi jokatzen



J. AGIRRESAROBÉ

FRONTOI ZAHARRA

“Gure garaian, frontoiak funtzio soziala zian herritik kanpoko eskola batean genbiltzanontzat”

HAMABI URTE GALARRETAN

“Ez gaudek elitean, baina bai gure lekuan ondo egonkortuta. Gorabeherak izaten dizkiagu pilotari guztiok, batzuetan joko maila politagoarekin eta besteetan eskasagoarekin izaten gaituk. Baina enpresak eta katedrak erregulartasuna baloratzen ditek”

KATEDRA ZORROTZA

“Txistu egin edo zalaparta ateratzea ulertzekoa dek, norbera ere konturatzen dek ondo ari den edo ez. Baina burla asko ere entzun izan diagu, eta batzuetan gehiago kostatzen dek jendearen grazia aguantatzea”

PILOTAK

“Lehen material biziagoa eta pisutsuagoa erabiltzen zuan, ikuskizunaren alde uste diat. Jokoak abiadura galdu dik”

ERREMONTEAREN IKUSGARRITASUNA

“Telebistan partidak ematea txarrerako dek, kamerek pilota harrapatzen ez duten bitartean. Herrietako pilotaleku txikietara eramatea dek klabea”

PILOTALEKUA OBRETAN

“Azken urteetan jolastoki hutsa izan dek frontoia. Profesionalizatu gabe, zerbitzuari seriotasuna eman behar zaiok: kantxa eta aldagela txukunak, arduraduna...”

dituk. Nola bilatzen dek motibazioa jaialdietako partidetan?

Gaur hire bikote denaren aurka jokatuko dek bihar. Jendearen dibertsioa beste helbururik izan ez arren, partidu bakoitzari aparteko interesa aurkitu behar zioz norberak. Norbera gozatzen

ari denean, gauzak ondo doazen seinale izaten dek.

Zer pasaliteke pilotari batek kantxan ez gozatzeko?

Materiala izan zitekek. Disziplina guztietan aldatu dek. Lehen material biziagoa eta pisutsuagoa erabiltzen zuan, ikuskizunaren alde uste diat.

Jokoak abiadura galdu dik.

Erremontearen ikusgarritasuna azpimarratzen dek behin eta berriz.

Hala sinesten dudalako. Baina bertatik bertara ikusi behar dek. Horretarako, klabea herrietako pilotaleku txikietara eramatea dek. Orain

arte Galarretara joan dek jendea, zuzeneko ikuskizunak oso gutxi hituen, futbola eta Galarreta nagusienetakoak. Beste diziplina batzuek telebista erabili ditek beren burua ezagutzera emateko, eta gaur egun mila aukera dituk arratsaldean pasatzeko. Kasu horretan, telebistan partidak ema-

tea txarrerako dek, kamerek pilota harrapatzen ez duten bitartean.

Arkitektura eskolan hasi berritan egin huen debuta. Nekagarria izan zaik urtetan ikasketak eta pilota uztartzea?

Elkarrekin ezagutu dizkiat biak: goiza lanerako aprobe-txatu, bazkaldu, lo kuluxka egin eta partidua jokatzera, gauean lanean segitzeko. Bien konbinazioak orekatua behar likek, baina kantxatik kanpo burua estutzen duanean jokoan nabarmendu izango huen zenbaitetan. Baina lehentasun biak izan dizkiat eta hala dituk orain ere.

Iaz karrera amaituta, hire kasa lanean hasteko erabakia hartu dek. Nolatan?

Arkitektura estudio batean aritu ninduan bi urtez. Baina karrera bukatzearekin, pare bat lan atera eta gure kasa hastea erabaki genian ikaskide zarauztar batek eta biok. Esperientzia baloratu eta aurrera egitea erabaki genian.

Zumaian bizi arren, ez habil urruti. Zer moduz ikusten dek herria kanpotik?

Aldaketa handiak izan dituk, eta ez zekiat pertsona egokienak hartzen ote dituzten erabakiak, herriaren hazkundeari eta garapenari dagozkienak, behintzat. Herriaren sarrera-irteerak itxura aldaketa behar ditek. Tartean bazeudek interes handiko guneak, Zeramika erakina, esaterako. Ordena eta nortasuna eman behar zaio herriari.

Herriko pilotalekua obretan zagok. Pilotaria eta arkitektoa haiz hi. Zer egingo huke?

Bazuan zerbait egiteko garaia. Etxe tartean egoteak baldintzatzen dik, baina gauza ederrak egin zitezke: armailen azpian biltokiak eta aldagelak sartu eta atzeko zatia plaza irekia bihurtzea zegok, baita Iturbide aldapako irekiera txukuntzea ere. Bestalde, funtzionamendu arauak behar dituk. Frontoiak



J. AGIRRESAROBÉ

eta plazak sarrera bana izan zezaketek.

Azken urteetan jolastoki hutsa izan dek frontoia. Profesionalizatu gabe, zerbitzuari seriotasuna eman behar zaiok: kantxa eta aldagela txukunak, arduraduna...

Herriko pilotalekua konpontzen dutenean Oriora etortzea litzateke aukera.

Gustatuko litzaidakek, herrian erakustaldi hori ematea. Herrian edadeko jendeak kartelera irakurtzen duela konturatu nauk, jendeak

emaitzaren arabera komentarioak egiteko gelditzen na-txiok kolean. Orain, gazteekez ditek erremontea ezagutzen, telebistaz beharbada, baina aurrez aurre ikusi arte ez dek zaletuko.

Bueltatu gaitzen kantxara. Zer kendu dik pilotak?

Osasuna. Pilota oso gutxitan etortzen dek era-eran eta gorputza kastigatu behar: lurrera botatzeagatik kolpe txar asko izaten dizkiagu. Horrez gain, desorekatua dek, eskuina bakarrik erabiltzen

diagu. Gerria dek, halere, gehien sufritzen duena.

Fisioterapeutarengana joaten gaitukia astero, beti izaten dek-eta zerbait zuzendu beharra.

Luzerako ikusten al dek hire burua Galarretan?

Oraindik beste urte batzuetan, bai; hala nahiko nitek, behintzat.

Arraroak egiten zaizkidak partidurik gabeko ostegunak eta asteburuak. Aukera ematen duten bitartean, saiatu nahi diat.

KARKARA

Nola aldatzen diren gauzak...

Lehenik eta behin zorionak eman nahi dizkizuet KARKARA egiten lagundu duzuen guztioi eta urtez urte diharduzuenoi, bejondeizuela! Zuen lanarekin sortu duzuenak jarrai dezala beste hamaika urtetan.

Idatzia egiteko eskatu zidatenean atzera jo nuen, eta oroimen asko pasa dira nire burutik.

Herrian galdezka aritu nintzen KARKARAN hasi nintzenean. 16 urte ingurunituen, Patek ematen zituen ingelesko eskoletara joaten nintzen. Etxera bidean nahikoa kontu izaten nuen Nereren eta Anaren konpainiarekin. Hasieran harrigarria egiten zitzaidan hain jende garrantzitsuarekin elkarriketakizatea. Baina etxerako iluntze batean, KARKARAKO partaide izatera gonbidatu ninduten.

Nik beti bezala azkareman nuen baietza (batzuetan damutu egiten naiz hain azkar



AINARA PEÑA
IRAKASLEA

baietz esateaz; baina ongi pentsatuta, zenbat gutxiago jakingo nukeen hainbat gauza bi aldiz pentsatuko izan banitu).

Herriko iritziak jasotzen jardun ondoren, albisteak kontatzen eta elkarriketaxoak egiten hasi nintzen. Pertsona lotsatitzat dut nire burua, baina bizi izan nituen hainbat egoerek, nire perezei

edo ahuleziei aurre egiten lagundu zidaten.

Denborak aurrera egin ahala, gero eta jende eta kontu gehiago nekizkien: herriko taldeak, jaiak, kirolak, udal planak... izugarrizko aberastasuna zen niretzat bizitzen ari nintzen esperientzia; aberatsena komunikazioan eta harremanetan trebatzeko kompetentzia garatzea zen.

Lan egiteko moldea ere xelebrea zen: hilabete hasieran elkartzen ginen talde osoa hurrengo alean zer joango zen erabakitzeke. Hala ere, azken astean betetzen genituen edukiz 48 orrialdeak. Batek baino gehiagok gogoratuko dituzuela igande gauak, Gaboneko bokadiloak eta asteburuko bizipenen errepasoak.

Garai hartako bi notizi gogoratzen jarrita, burura etorri zait Sareak Ehuten egitasmoa, mahainguruak eta kultur ekitaldiak uztartuz, herria elkartzeko foro irekia (ez dakit sortzaileek onartuko duten

definizioa); baita Anibarko Portuko lehenengo etxe babestuetan egon ziren arazoak ere, gaigutxik bete zuten horrela pleno aretoa.

Baina KARKARA lana baka-rrik ez zen, festa ere gustuko genuen eta sasoiro egiten zen afaritxoren bat edo beste. Gogoratzen aldituzue Miss eta Mister nominazioak? Nik batzuk baditut gogoan, *Mister Oriyon horrela esaten da, Miss foto hau desenfokatuta dao, Mister nik inda dekat, Miss orain dela 25 urte...* barkatu ahazten zaizkidanengatik.

KARKARAN agertu naizen azken aldian Saltseren izenean egin dut, eta uste dut KARKARAN parte hartzeak eman didalaizate hori. Eskerrikasko!

Bukatzeko epe motzean irakurtzea gustatuko litzaizkidekeen berriak: herriarrron parte hartzeaz aukeratuko dugun Orio batean bizitzea, denon eskubideak errespetatu eta aukera berdina izanez.

"KARKARAN bizi izan nituen hainbat egoerek, nire perezei edo ahuleziei aurre egiten lagundu zidaten"

uranga
autozerbitzua



Aliprox

Erriko Gudarai Kalea 13-15
ORIO
943 83 20 75



A&E
The Academy of English

Justo kalea 3, Zarautz | Ibañeta pl. 8, Orio

Tel. 943 00 42 44
943 83 51 91

Dorronoro Denda
1961etik zure ondoan

AUKERA HANDIAGOA FRUTATEGIAN

Tel 943 83 09 37



tailer mekanikoa

AUTO-LAN C.B.

urrutina joan gabe talde berria zure zerbitzura



Pelotari kalea, 5 ORIO 943 83 00 34

ADARRETATIK HELDUTA

Bizitzarako energia

Udaberrian gaude, giroa udatiartzen ari da, eta bazen garaia! Negua latza izan da, baina nik eskertu dut, etxetik-lanera eta azken hilabeteak ordenagailuari itsatsita egoteko, eguraldi txarra hobe! Baina uda ate joka dugu eta ordurako ni ere energiaz beteta eta libre izango naiz! Energia-kutxa betetzeko, berriz, kale-ra irten, haizeari aurpegia ferekatzen utzi eta eguzkiak goxatu nazan irrikitan nago! Eta nola ez... itsasoan lehen bainua, aurren berantiarra, baina laister iritsiko dena. Nik neuk energia biltzeko aipatutako elementu berak dira gure egunerokotasunerako beharrezkoa den energia lortzeko energia berriztagarrien emari.

Energia berriztagarriak ustiatzeko, ordea, bide ezberdinak jorratu daitezkeen arren, gurean badirudi haize-errotak jartzea beste irtenbiderik ez dagoela. Azken hilabeteetan Gazumeko haize-errotak zentralari buruzko informazioa zabaltzen eta alegazioak biltzen jardun dute hainbat natur-taldek. Azken berria, Gipuzkoako Batzar Nagusiek ere Eusko Jaurlaritzari lanak geratzeko eskatu dietela. Izan ere, energia berriztagarriak ustiatzeko komunitatearen interes guñeak (LIC) zein babes-guñeak txikitzeak ez dauka zentzurik. Interes guñe izendapena arrazoi ezberdengatik lortzen da, Gazumeren kasuan hegaztien



ONETSINE ARRIZABALAGA
BIOKIMIKARIA

Energia berriztagarriak ustiatzeko komunitatearen interes guñeak zein babes-guñeak txikitzeak ez dauka zentzurik... Beste hainbatetan bezala, politika-negozioak sartzen dira hor

migrazio-bidea izateagatik, zein bertan arriskuan dauden putre, saguzar nahiz narrastiak bizi direlako. Beraz, ulertezina egiten zait izendapen horren gainetik haize-errotak jartzeko planaren erabakia hartu izana, baina hor, beste hainbatetan

bezala, politika-negozioak sartzen dira, noski!

Euskal Herriko gailurrak On Kixotek hainbeste beldur zien erraldoiez betetzea ote da ba energia berriztagarriak ustiatzeko modu bakarra? Interneten galdera egin dut, itsasoko haize-energiari buruz, eta lehenengo erantzuna gustatu zait. Baltiar Itsasoa bustitzen duten 10 herrialdek proiektu amankomuna garatu dute itsas-haizeaz baliatzeko; baina hori bai, horrelako energia zentralak ezartzeak ingurunean izango lukeen eragina aztertutako ondoren eta babes-tutako guñeak ere kontuan hartuta zehaztu dituzte haize-turbinen kokalekuak. Euskal Herriko lurra itsasoak ere bustitzen dituela kontuan hartuta, beste aukera jatorra litzateke, beharrezko azterketak eginda, noski!

Hala eta guztiz ere, ezinezkoa da energia guztia ustiapen modu bakarretik lortzea; horregatik Gipuzkoako lau herritako eraikuntza publikoetan ere jarri behar dituzte eguzki-panelak. Eguzkiaren energia, haizearenaren moduan, ez da egunero baliagarri izan daitekeen iturria, baina bada etxeetako teilatuetan kokaturik, ingurumenarekiko kalte gutxien dituen. Beraz, ez dut ulertzen, eraikitzen ari diren babes ofizialeko etxebizitzek nolatan ez dituzten teilatuak eguzki-panelez josiak, inbertsio ederra bezain garbia ez ote litzateke ba!

NIRE HONETAN

Awatxumeri izenaz

Ainhitze, Iokin eta Ioana, ez! Mariapetrikok, Frantzes eta Fruktuoso, bai! Euskaltzaindiak euskal izenak *txukun-txukun* sailkatu eta horietako asko -auskalo zer nolako irizpideak erabili dituzten- baztertu egin ditu, antzekoak diren izenak kendu eta bakarrera mugatuz. Ainhize behar du izan orduan, eta ez Ainhitze.

Ez du askotarako balio han edo hemen entzun edo Sehaskako egutegian ikusi eta ikaragarri gustatu zaizun izen hori jarri nahi izateaz zure alabari. *Jauntxoek* esandakoak besterik ez du balio erregistroan, eta kitto!

Hala ere, ez du kontsolatzeko ere balio, baina... zirrikitu txiki bat utzi dute aprobetxa dezakeenarentzat: semeari Bertso izena jarri nahi, Euskaltzaindiak onartzen ez, eta Estonian erabilia dela uste baduzu, ziurtatu ezazu. Hala bada, nahikoa da erabilera horren berri paper bidez ematearekin. Bertso izango da, ofizialki ere, zure etxeko txikia. Bertso, Astakirtenius (Greziako izena) edo Txorakering eta Awatxumeri (Ingalaterran erregistratuak).

Frankok bere garaian ere hala esan zuen: Miren eta Xabier izenak ez ditut onartuko, izan daitezela guztiak Maria eta Javier.

LORE BERALALUZE

agirresarobe+elizondo arkitektura

Obra eta proiektuak

obra berrien proiektuak • informak • erretornak eta erreabilitazioak • obren direkzioak • gremio koordinakuntza

borja agirresarobe lopelegi tel. 635 731 722

Pinturak
ELKAR

pintura eta paperatze lanak
zoru leunketa

Abendako industrialdea
943 83 08 45 / 943 83 23 35
ZARAUZ

Carmen eta Txomin
ARRANDEGIAK



943 83 05 37 / 943 83 27 47

MOILA BAZTERRETIK

Garbitu belarriak



GARBIÑE MATEROLA

Aurten urruti antzera joan zaigu oporretara. Nekatuegi zegoela, horixe izan zen esan zuen bakarra. Eta gure alproja bihurriak hilabete gutxi batzuk nahikoak ez eta oporraldia ia urte sabatiko oso bat bihurtu

du! Askok eta askok esan didate tarte hau, moila bazter hau, aprobetxatu beharko nukeela, behingoagatik arrastoan sartzeko gure alpertunantea. David Goliath erraldoiari bezala aritzea bada ere, beste erremediorik ez dudanez hona prestatu dudanez erretolika:

Akabo fandangoa, aditu beharko ditun nik esan beharrekoak. Bai, bai, ez begiratu beste aldera, hiri ari naun. Altzaporru! Lanean hasteko ordua dun. Bukatu ditun jendea despistatzeko aitzakia merkeak edo hasitako lanak erdipurdika uzteak. Jendea kexu dun, ez omen dun ezer txukunik egin udazkenean, neguan ezta udaberrian ere. Atzeratuak ditun etxeko-lanak, eta zigor bat merezi dun: lana tope egin beharko

dun hemendik aurrera. Horretxegatik hemen lan baldintza berrien zerrenda:

1. Hemendik hasi eta Kontxa bigarrena arte gutxienez 5 eguneko lanastea.

2. Lanaldiosoa eta jarraia, etenik gabea.

3. Gutxieneko ordutegia ondorengo egunotan: Kukuarrieguna, san Juan Berdegaua, sanpedroetako danborrada eguna eta kuadrilakook Luxarben egingo dugun afari-merienda eguna.

A! Eta ezta okurritu ere sindikaturen batean galdera egiterik, zerrenda honek ez baitin hire lan baldintzarik urratzen.

Eguzki amandrea, hireak egin din, gu babesten, gu goxatzen, gu biziberritzen hasteko garaia dun.

Eta orain errezatu goiko

Askok eta askok esan didate tarte hau, moila bazter hau, aprobetxatu beharko nukeela, behingoagatik arrastoan sartzeko gure alper tunantea. David Goliath erraldoiari bezala aritzea bada ere, ez dut beste erremediorik

horrek kasu egin diezadan. Eguzki izpien berotasunak lozorrotik esna gaitzala!

Bestela, orduan, bereak ez, baizik eta gureak egingo du.

Galerna

18€

(BEZ barne)

EGUNEKO MENUA, EGUERDIAN ETA GAUEAN:

**Ahate eta fruitu gorri bizigozo entsalada
Tallarinak Carbonera eran, urdaiazpiko iberikoarekin
Bakailaoz eta espinakaz betetako pikillo piperrak
Etxeko frijituen aukera**

**Txerri saiheskiak aranpasa saltsan
Eguneko arrain freskoa
Idi buztana ardo beltz eta kanela saltsan
Onddo lasagna**

**Etxeko krema katalana
Kafezko flana
Gazta tarta
Ijito besoa**

**Ogia
Ardoa
Sagardoa
Lanbrusko
Ura
Cava**

943890416 - 677149934
galernalorio@hotmail.com

Gabon
TABERNA
plater konbinatuak
Tfnos: 943 83 06 09

Goizeko
KAFETEGIA
☎ 943 83 28 55
Aita Liriozuri, 33 behean - ORIO
Autobus parada ondoan

HAIZE & BERRI
taberna-jatebasa-kafetegia
Plater konbinatuak,
bekadak,
hamburgerak,
sasioak,
egunka menua...
eta etxera eramaten ditugu zerbitzua!
Zorua Liriozuri, behean 1 ☎ 943 83 28 55 taberna-jatebasa-kafetegia

islada
BESERUA ZORITZA
Sheila De Miguel - Saray Cendoya
Eskualdeko kalea, 2 behean - Orio 20810
Tel. 943 133 856
e-maila: isladario2@hotmail.com

AMILIBIA
ONTZIOLAK, S. L.
kaleko putzaren proiektu
eta instalazioak
guri ematen dituzte
Olasgoegia, 52
34 943 83 08 29
faxa 34 943 89 40 81
amilibia@amilibia.com
www.amilibia.com

Orioko
Herri
Ikastola
Guraso Kooperatiba
ABESLARI KALEA, 8
TEL: 943 83 47 04
FAX: 943 13 09 38
orio@ikastola.net
www.oriokoikastola.net

Faroeko bakailaoa
daukagu
ITSAS
MENDI
gutizlak
Eusko Gudari, 5 - Tel. 943 24 07 74 - Orio

INDO
Garraio frigorifikoa
NAZIONALA ETA NAZIOARTEKOA
Olasgoegia, 12 - Tel. 943 894 024 - Fax. 943 130 144 AIA-ORIO

KORRONTZI
getxo
dangarin

MAIATZAREN 30EAN,
LARUNBATA
KORRONTZI
FOLK TALDEAREN KONTZERTUA
20:00TAN
USURBILGO FRONTOIAN,

Noaua
www.noaua.com

Noaua!ren eskutik



Justina Etxeberria Azkue senideekin

Ehun urte egin zituen Justina Etxeberriak pasa den maiatzaren 14an. Uzkudun baserrian (Andatza auzoa) jaio eta bizi izan zen ezkondu bitartean. Argazkian azaltzen diren bost anai-arrebetatik bizi den bakarra da Justina.

Familiak utzitako argazki ederrean ondo ikusten dira Justinak haurtzaroan inguruan zituenak, dotore eta oso serioak, argazkia egiteko momentuan,

artasoroko ertzean eserita. 1920 inguruan egindakoa da.

Hona hemen izen-abizenak: ezkerretik eskuinera, atzean daudenak Floro, Juana, Justina eta Joxepa Inaxi Etxeberria Azkue anai-arrebak dira.

Aurreko lerroan, eskuinean, horien arreba Maria Etxeberria Azkue dago, eta magalean Juanita Arruti Etxeberria alaba du. Mariak Agustin Arruti

senarra du ondoan. Eta beste biak, bost anai-arreben gurasoak dira: Jose Mari Etxeberria eta Frantziska Azkue.

Joan den astean ahal ziren senide guztiak elkartu ziren Justinaren 100. urtebetetzea ospatzeko, eta argazki bildumari gehitzeko foto berri batzuk aterako zituzten, noski.

**ARGAZKIA ETA INFORMAZIOA:
SENIDEAK**

Txoko honetan erakusteko moduko argazki zaharren bat baldin badaukazu, ekarri KARKARA eta gustu handiz argitaratuko dugu, zuk ekarritakoa dela jarrita.

KARKARA



Sagasti
LEIHOAK

ROBERTO SAGASTI
Tf: 943 732 913
Faxa: 943 029 213
ventas@sagasti@euskalnet.net
Bizkaia kalea, 20-1 B
20800 Zarautz



**ARGAZKI
DIGITALEN
ERREBELATUA
MOMENTUAN**

Bideo Produzioa

Aritzaga, 15; 20810, Orreaga
Tf: 943 83 38 81
izarra.70@vodafone.es



KRITIKA



Pil plean zen mugimendu baten lekuko, sekulako testigantza utzi zigun Txistok.

AITOR ARREGI TXISTO

Hamarkada baten kronika altxor txiki batean jasota

4.000tik gora negatibo eskaneatzea, tratatzea eta txukuntzea izan zen lehen lana. Onenak aukeratu, taldeka antolatu eta diseinu txukun batean biltzea etorri zen gero. Ehunka ordutako lana. Santi Manterolak gauzatu eta Andoaingo Gaztetxeak ekoiztu duen *Istoriobat kameraren atzean* liburu-DVDaz ari natzaizu, irakurle.

80ko hamarkadan Andoaingo Gaztetxe zaharrean izandako kontzertu esanguratsuenen testigantza jaso nahi izan du lan horrekin.

Zuetako asko harrituko zinatekete (neroni behintzat bai) lokal xume hartan airtutako taldeen zerrenda ikusita. Askok izar bihurtu ziren urteekin: Green Day, Snuff... Nirvana eta Foo Fighterseko bateria jotzailea izango zena ere hantxe aritu zen Screamekin. Underground delako zirkuituak ziren euren eremua eta lokal zahar hura zirkuitu haren hiriburua Gipuzkoan.

Autogestioan oinarritutako lokalengarrantzia aldarrikatu besterik ez nuen nahi azalpen horrekin. Hortaz,

noan harira: Argazkien egilea Aitor Arregi Txisto izan zen, aurreko hamarkadan zendutako gazte andoaindarra. Milaka argazki utzi zituen ondare gisa, eta Manterolak omenaldia egin nahi izan dio hauts artean ahaztuta zegoen altxorra berreskuratuz. Altxorra baita memoria historikoa, alor guztietan, berreskuratze hutsa. Izandakoaz jabetu, hausnartu eta aurrera begiratzen jarraitu ahal izateko botika paregabea. Zorionak Santi, eskerrik asko Txisto.

PATXI URANGA

IKASLEAK IDAZLE



KEPA EIZAGIRRE |

DBH 4. MAILA

Motoak leku faltan

Orion, orokorrean behintzat, motoak aparkatzeko leku falta dago. Batik bat, azkenaldian, arazo dezente sortzen ari dira Blinken etxe atze inguru horretan. Parrandara doan jendeak, motoak uzteko lekurik ez dela-eta, etxe atze horretan uzten ditu motoak, eta bertako bizilagunak azkenaldian kexa dira parrandatik etxerakoan motoak hartzerakoan burrunba handi xamarra egiten dutela eta.

Arazo hori konpontzeko, gailego zaharra zen hartan Udalak egin du motoak aparkatzeko lekua, baina han kotxeak egoten dira eta gainera ziur xamar kexatzen diren horiek ere bertan aparkatzen dituztela autoak, leku falta dagoenean. Hortaz, moto zaleengatik kexatu baino lehen, kexatu kotxeak bertan uzten dituztenengatik ere.



HANDIK ETA HEMENDIK

“

“Futboleko jokatzeko balio ez baduzu, arraunera jotzen da Orion.”

JOXEAN OLASKOAGA

Arraun elkarteko
entrenatzailea
Nuevecuatrotres
2009/05

“Aurkitu berri duten Venusen bular-alu biribil irmoei begira nago. Silex punta bat hartu eta mamut baten letaginetik halako obra paregabea atera zuen gizakiarentzat ez dakit zer izango zen sexua, baina lepoa egingo nuke emantzipatuontzat baino mirari garbi naturalagoa zela.”

ANJEL LERTXUNDI

Idazlea
Berria
2009/05/15

OSPAKIZUNA



Ramon eta Mari Karmen

Apirilaren 25ean, Ramon Mari Olidenek eta Mari Karmen Manzidorrek orain artean ezkondu elkarrekin pasatako 50 urteak ospatu zituzten familiarean.

Goizean, Bariko San Nikolas parrokian elizkizuna egin zuten, tronpeta, kantu eta dantzekin alaituta, eta gero Altzerri jatetxean izan ziren bazkaltzen.

Zorionak bikote eta urte askoan horrela jarrai dezazuela opa dizuegu!

ZORIONAK!



AISako ikasleei

Taldea osatzeko esperantzan jarri zuen martxan Orioko Udaleko Euskara Batzordeak euskara ikasteko etorkinentzako AISA ikastaroa, martxoa aldera. Erantzun aparta izan zuela badakigu. Hala ere, haratago joan dira hainbat eta hainbat ikasle eta euskara ikasteko gogoz eta grinez, ikastaroa luzatzeko eskaera egin dute, trebatzen jarraitzeko.

Sanpedroak arte jardungo dira, egunero, kalean erabiliko dituzten esaldi eta hitzak ikasten.

Gure hizkuntza ikasteko erakutsi duten prestutasuna eta nahia goraiatu nahi izan ditugu txoko honetan.



kutxa

Allianz

Marigre Zaldua
aseguru agentea

Ibizi Ondu: 16 bote-oina
telefonoa: 943 13 47 60
faxa: 943 63 57 52
e-maila: zaldua.delacruz.pag@allianz.es

LUXARBE
igeltseritza

Igeltseritza orokorra, denotarik egiten dugu. ☒

Presupuestoak eskatu konpromisorik gabe ☒

Lan txukuna eta merkea ☒

Tfnoa: 943 53 59 00

MA*NA lokutorioa

internet • bidaiak • DHL-rekin (dinu, pakeak, dokumentuak...) •
telefono delak (internazionalak, herrialdeak, lokalak) • mugikorraren erregista •
mugikorraren libratzea • telefono txartelak • faxa •
fotokopiak • eskutria

Endaia enparantza,1
20810 ORIO (Gipuzkoa)

Tel./Fax: 943 13 50 82
locu-mana@euskalnet.net

ile apaindegia
MARIJO



Eusko Gudari, 8 - bajo
Tel. 943 13 47 29
ORIO

ORAIN DELA 25 URTE

Marrazki lehiaketa egin zen, sanpedroetako festetarako

Sanpedroak antolatzeko lehen bilera egin zen Orion maiatzaren 22an, 20:30ean.

Urtero bezala, Udalak argitaratutako festen egitarauaren azalean agertuko zen marrazkia aukeratzeko lehiaketa ere martxan jarri zen eta oinarriak zehaztu ziren: urte hartako gaia herri-kirolak izan zen; orduko OHOk haur guztiek har zezaketen parte, baina ikasle bakoitzak lan bakarra aurkez zezakeen; marrazkiek orri osokoak eta inoiz argitaratu gabeak izan behar zuten; eta edozein material mota erabil zitekeen lanak egiteko.

Parte hartu nahi zutenek maiatzaren 30erako utzi behar zituzten lanak liburutegian.

ARRAUNA ETA ARRAUNA

Gipuzkoako bateletako txapeldun izan ziren Orioko jubenilak, maiatzaren 13an. Ibon Urbietak, Carlos Etxeberriak, Luis Etxeberriak eta Jose Luis Agirrek, Kaperotxipi patroizutela, 7 minutu, 18 segundo eta 27 ehuneko behar izan zituzten estropada bukatzeko.

Maiatzaren 26an, senior kategoriako Euskadiko aulki mugikorrek txapelketa jokatu zen gurean. 165 arraunlarik parte hartu zuten, baina giro kaskarra izan omen zen, ikusle gutxi hurbildu baitzen estropadak ikustera.

Hilaren 27an, berriz, Euskadik, Akitaniak eta Katalu-



Marino Lejarretari bi bizkarzain jarri zizkion Guardia Zibilak Espainiako Bueltan mehatxatua izan zelako

Gipuzkoako bateletako txapeldun izan ziren Orioko jubenilak, maiatzaren 13an

10.000 lagun bildu ziren Senpereko lakuan iparraldeko ikastolen aldeko festan

niak aulki mugikorrek lehia berezia jokatu zuten Orioko ibaian. Akitaniarrak nagusitu ziren kadeteetan eta senio-urretan. Jubeniletan, Euskadik irabazi zuen.

LEJARRETA MEHATXATUA

Espainiako buelta jokoan zela, Marino Lejarreta txirrindularia mehatxatu zuen ezezagun batek, itzuliko antolatzaileei egindako telefono dei baten bitartez. Oviedo eta Leon arteko etapan atentatua jasango zuela zioen deiak eta bi bizkarzain jarri zizkion guardia zibilak Berrizko txirrindulariari. Lejarretaren alboan joan ziren honek, Pajaresko mendatean, Gorospe, Arroyo eta Collekin batera pelotoitik ihes egin zuenean ere. Azkenean, presioa ezin jasan eta buelta utzi egin zuen Lejarretak.

ISTRIPUA

Barreroskamioi batek 77 urteko Eulalia Azpiroz Anabitarte oriotarra harrapatu zuen maiatzaren 16an, eguerdiko hamabiak aldera. Orioko zubi parean gertatu zen ezbeharra eta istripuaren ondorioz bertan zendu zen Azpiroz.

HERRI URRATS

10.000 lagun bildu ziren maiatzaren 13an Senperen iparraldeko ikastolen aldeko festan. 300 lagun jardun ziren lanean, ordura arte Lapurdin, Behe Nafarroan eta Zuberoan ezagutu zen jairik handiena antolatzeko.

Garai hartan 700 neska-mutiko eskolaratzen zituzten iparraldeko ikastolek; Lapurdin, horietatik gehienak, baina baziren gutxi batzuk Zuberoan eta Behe Nafarroan ere.

JAIOTAKOAK

- Eki Arregi Iribar, Aian, maiatzaren 17an.
- Mikel Manterola Mujika, Orion, maiatzaren 11n.
- Jare Millares Esnal, Orion, maiatzaren 11n.
- Laia Rivas Tamayo, Orion, maiatzaren 4an.

EZKONDUTAKOAK

- Fernando Anza Azkuna eta Marijose Azkue Arruti, Orion, maiatzaren 18an.
- Maria Luisa Garmendia Bereziartua eta Jose Luis Gartzia Etxegarai, Orion, maiatzaren 7an.

HILDAKOAK

- Martzelo Odriozola Alberdi. Aian, maiatzaren 19an. 83 urte.
- Romana Blazquez González. Orion, maiatzaren 9an. 85 urte.
- Maximiliano Herranz Muñoz. Orion, maiatzaren 9an. 80 urte.
- Juan Idarreta Mendizabal. Aian, apirilaren 26an. 84 urte.
- Alfonso Arizeta Iribar. Aian, apirilaren 25ean. 51 urte.

Eskela edo urteurrenko gogoangarria KARKARAN jarri nahi baduzu, deitu gure telefonora:

943 83 15 27



atzeratzea
MIRANDA
Jose R. Miranda

betira, ate, leiho, eskateia...
behar diren arretak
egin eta dirak

Urdineta bidai. 1 - 669 42 32 70 - ZARAUTZ

ODITZ

Amara nabatzen duzunak
gurea da erantzuna

tel. 943 83 00 89

Kelso Larrasolarte
Larrasolarte Larrasolarte

kelso larrasolarte 647028489

lorategi eta terrazen diseinua eta
mantentzea, ureztatze sistemak eta
kumaketa espezializatuak

ENERITZ ERKIZIA | ERIZAINA

“Gaur egun aukera dago hemen erizain izateko”

Bederatzi urte daramatza Eneritz Erkiziak erizain. Donostia ospitalean ari da lanean, egun, jaiaberriekin.

Ikasketak bukatu eta segituan hasi al zinen lanean?

Hiru urte ikasten pasa eta gero, 2000. urtean bukatu nuen diplomatura. Orain lau urteraluzatu nahi dutela ustedut, Europako ikasketa mailarekin parekatzeko.

Egun ez bezala, lan bila atera nintzen, ez zegoen zeregin askorik eta antropologiako ikasketak egin nituen, denbora egonean pasa ordez.

2002ko udan hasi nintzen ordezkoak betetzen, ospitalean, eta hara eta hona ibili ondoren, bospasei urte jarraian daramatzat geratu gabe.

Etorkizunak behintzat ez du kolore beltzik zuen kasuan.

Lehen, fakultatetik atera berrian lagun asko joaten zen kanpora, lan bila, baina egoera aldatu da eta etxean bertan erizain izateko aukera dago egun. Sendagile eta erizainak etengabe eskatzen dira orain. Lan asko dago eta jende kualifikatua aurkitzeko arazoak daude, baja hartzeko ere gorabeherak izateraino.

Jende falta aipatu duzu. Eta leku beharra?

Ez dut uste leku beharra edo falta arazoak denik; Euskal Herrian, behintzat. Hango eta hemengo erietxeak etengabeko harremanean egoten dira eta adibide bat jartzearen, duela hilabete edo Nafarroako ospitaletik gurera deitu zuten jaiaberrien zerbitzua gainezka zutela eta, behar izanez gero, Donostiakora bidaltzeko aukerarik bazegoen galdetzeko.

Bestalde, bolada kontua



Bi urte inguru daramatza Eneritzek jaiaberriekin lanean.

KARKARA

Lan asko dago eta jende kualifikatua aurkitzeko arazoak daude, baja hartzeko ere gorabeherak izateraino

ere izaten da sarri. Haurren kasuan, gainera, gero eta goiztiar, bizki eta hiruki gehiago jaiotzen dira eta horiek denbora behar izaten dute guztiz osatzeko. Arreta berezia eskatzen dute eta zerbitzua uste ez duzula betetzen da.

Bizi-itxaropena ere gero

Euskara jakiteagatik esperientziadun erizainek baino lan baldintza hobekak ditugulako kexatzen zaizkigu

eta handiagoa da eta gaixo gehiago dago.

Zuk haurrekin egin al duzu beti lan?

Oposaketak egin nituen eta lanean hasteko itxaroten ari ginenen zerrendan sartu nintzen –orokorraz gain, lis-

ta espezifikoak ere badaude: tartean, larrialdietako zerbitzua, haur jaiaberriekin, anbulatorioak, intentsiboak, pediatria edo kirofanoa-. Handik edozein zerbitzutara bidal zaitzakete, beharren arabera.

Nire kasuan, lehen kontratua gernu arazoak zituzten sailean aritzeko izan zen. Handik intentsiboetara pasa nintzen. Hango eta hemengo anbulatorioetan ibili ondoren, ospitalera itzuli nintzen. Egia esan, gehiago ikasten da erietxeetan eta hara jotzen dugu, nahiz eta ordutegi aldetik erosoagoa izan anbulatorioetan lan egitea. 2007an, berriz, ektopikoen sailean aritu nintzen, eta neonatologia-ra pasa ninduten gero.

Zerbitzuz aldatzeak ere izango ditu, bada, oztipoak?

Lanaren oinarria berdina da zerbitzu guztietan, zaintza aldetik, baina funtzionamendua goitik behera aldatzen da. Gaixoen diagnosiak erabat ezberdinak dira, baita jendearenganako tratua ere. Dagoenera egokitu behar izaten dugu.

Pil-pilean dagoen gaia da osasun zerbitzuan euskara erabilera. Zer diozu?

Orain arte euskaraz jakitea asko baloratu izan da eta jende asko kexatzen zen. Izan ere, langile erdaldun dezentek dago Osakidetzan eta euskarazko lehen eta bigarren eskakizunak egiten aritzen dira. Nahikoa buruhauste izaten dituztela eta haienak aditu behar izaten ditugu guk, euskara jakiteagatik esperientziadun erizainek baino lan baldintza hobekak ditugulako, beren esanetan. Dena den, Gobernu berriarekin euskararen garrantziak aldaketarik izango duen ez dakit.

TREN ORDUTEGIAK

DONOSTIA - ZARAUTZ

Donostia	05:47	06:17	06:47	07:17	07:47	08:17	08:47	09:47	10:47	11:47	12:17	12:47	13:17	13:47
Aia-Orio	06:11	06:41	07:11	07:41	08:11	08:41	09:11	10:11	11:11	12:11	12:41	13:11	13:41	14:11
Zarautz	06:19	06:50	07:20	07:50	08:20	08:50	09:20	10:20	11:20	12:20	12:50	13:20	13:50	14:20

Donostia	14:17	14:47	15:17	15:47	16:17	16:47	17:17	17:47	18:17	18:47	19:17	19:47	20:47	21:47
Aia-Orio	14:41	15:11	15:41	16:11	16:41	17:11	17:41	18:11	18:41	19:11	19:41	20:11	21:11	22:11
Zarautz	14:50	15:20	15:50	16:20	16:50	17:20	17:50	18:20	18:50	19:20	19:50	20:20	21:20	22:20

ZARAUTZ - DONOSTIA

Zarautz	06:08	06:38	07:08	07:38	08:08	08:38	09:08	10:08	11:08	12:08	12:38	13:08	13:38	14:08
Aia-Orio	06:15	06:45	07:15	07:45	08:15	08:45	09:15	10:15	11:15	12:15	12:45	13:15	13:45	14:15
Donostia	06:39	07:09	07:39	08:09	08:39	09:09	09:39	10:39	11:39	12:39	13:09	13:39	14:09	14:39

Zarautz	14:38	15:08	15:38	16:08	16:38	17:08	17:38	18:08	18:38	19:09	19:38	20:09	21:09	22:09
Aia-Orio	14:45	15:15	15:45	16:15	16:45	17:15	17:45	18:15	18:45	19:15	19:45	20:15	21:15	22:15
Donostia	15:09	15:39	16:09	16:39	17:09	17:39	18:09	18:39	19:09	19:39	20:09	20:39	21:39	22:39

Gipuzkoan garraiatzeko begira: www.mugitu.com

AUTOBUS ORDUTEGIAK

LANEGUNETAN

Donostia	Orio	Zarautz	Zarautz	Orio	Donostia
06:55	07:25	07:35	06:45	06:55	07:30
07:40	08:15	08:25	07:15	07:25	08:00
08:10	08:45	08:55	07:45	07:55	08:30
08:40	09:15	09:25	08:15	08:25	09:00
09:10	09:45		08:45	08:55	09:30
09:40	10:15	10:25	09:20	09:30	10:10
10:40	11:15	11:25	09:45	09:55	10:30
11:40	12:15	12:25		10:30	11:10
12:10	12:45	12:55	10:45	10:55	11:30
12:40	13:15	13:25	11:45	11:55	12:30
13:10	13:45	13:55	12:45	12:55	13:30
13:40	14:15	14:25	13:20	13:30	14:10
14:10	14:45	14:55	13:45	13:55	14:30
14:40	15:15	15:25	14:20	14:30	15:10
15:10	15:45		14:45	14:55	15:30
15:40	16:15	16:25	15:20	15:30	16:10
16:40	17:15	17:25	15:45	15:55	16:30
17:40	18:15	18:25		16:30	17:10
18:10	18:45		16:45	16:55	17:30
18:40	19:15	19:25	17:45	17:55	18:30
19:10	19:45	19:55	18:45	18:55	19:30
19:40	20:15	20:25		19:30	20:10
20:15	20:50	21:00	19:45	19:55	20:30
21:00	21:35	21:45	20:45	20:55	21:30
22:15	22:50	23:05	21:15	21:25	22:00

ASTEBURUETAN

Donostia	Orio	Zarautz	Zarautz	Orio	Donostia
08:00	08:35	08:45	05:45	06:55	07:30
09:00	09:35	09:45	07:45	07:55	08:40
10:00	10:35	10:45	08:45	08:55	09:40
11:00	11:35	11:45	09:45	09:55	10:40
12:00	12:35	12:45	10:45	10:55	11:40
13:00	13:35	13:45	11:45	11:55	12:40
14:00	14:35	14:45	12:45	12:55	13:40
15:00	15:35	15:45	13:45	13:55	14:40
16:00	16:35	16:45	14:45	14:55	15:40
17:00	17:35	17:45	15:45	15:55	16:40
18:00	18:35	18:45	16:45	16:55	17:40
19:00	19:35	19:45	17:45	17:55	18:40
20:00	20:35	20:45	18:45	18:55	19:40
21:00	21:35	21:45	19:45	19:55	20:40
22:00	22:35	22:45	20:45	20:55	21:40
22:30	23:05	23:15	21:45	21:55	22:40

OHARRA: lanegunetan koadro argidun ordutako autobusak Ubioltek pasatzen dira. Asteburuetan, beriz, guztiak pasatzen dira. Koadro funtazko ordutak larunbatetako (lanegina) zerbitzuei bakarriz dagozkie.

Aia eta Orio arteko autobus zerbitzua Landabusek daroma. Zerbitzuan buruzko informazioa lortzeko zerbait bide daude:

www.landabus.com Tf: 943 24 01 14 sms-a 5280 zenbakira

ITSASOA

Maiatza	Itsasgora	Itsabehera	Ilargia
22	03:19 eta 15:42	09:26 eta 21:48	
23	04:04 eta 16:24	10:08 eta 22:33	
24	04:49 eta 17:07	10:51 eta 23:19	●
25	05:35 eta 17:53	11:35 eta	
26	06:24 eta 18:41	00:07 eta 12:22	
27	07:15 eta 19:32	00:57 eta 13:11	
28	08:09 eta 20:29	01:50 eta 14:04	
29	09:08 eta 21:29	02:47 eta 15:01	
30	10:11 eta 22:35	03:47 eta 16:03	
31	11:19 eta 23:23	04:52 eta 17:10	☾
01	12:26 eta	05:59 eta 18:18	
02	00:51 eta 13:29	07:04 eta 19:23	
03	01:55 eta 14:25	08:03 eta 20:22	
04	02:51 eta 15:14	08:55 eta 21:14	
05	03:39 eta 15:57	09:40 eta 22:01	

ZAINTZAKO BOTIKAK



MAIATZA/EKAINA

- 22an, Mutiozabal.
- 23an eta 24an, Etxeberria.
- 25ean, Iriarte.
- 26an, Zulaika.
- 27an, Larrañaga.
- 28an, Mutiozabal.
- 29an, Etxeberria.
- 30etik 5era, Lasa.
- 06an eta 07an, Iriarte.

Azaldegi: Urdaneta kalea, 8.
943 13 31 83 Zarautz

Etxeberria: Gipuzkoa kalea,17.
943 83 23 98 Zarautz

Mutiozabal: Kale Nagusia, 12.
943 83 29 70 Zarautz

Larrañaga: S. Frantzisko, 16.
943 13 38 14 Zarautz

Lasa: Herriko plaza.
943 83 09 36 Orio

G. Artiñano: Zigordia kalea, 17.
943 13 40 19 Zarautz

Iriarte: Zinkunegi, Pilartxo Enea
943 13 29 83 Zarautz

Zulaika: Bizkaia kalea, 41
943 13 39 94 Zarautz

KINTO AFARIAK

■ Ekainaren 6an, Balea hotelean, 1964an jaiotakoen afaria. Izena ematea: Gabon tabernan, ekainaren 1a baino lehen.

■ Ekainaren 6an, Balea hotelean, 1943an jaiotakoen afaria. Izena emateko 943 83 26 66 telefono zenbakira deitu (Fernando).

ESKURTSIOA

■ Ekainaren 18an, Nafarroako Milagrora txangoa, Zaharren Babes Lekuak antolatuta. Prezioa: 30 euro. Irteera: 08:00etan, Donostia alderako autobus geltokian.

■ Izena ematea: ekainaren 9an, 16:30etik 18:30era, Zaharren Babes Lekuak. Beharrezkoa da bazkide txartela eramatea.

ZALDI DEMA

■ Maiatzaren 29an, zaldi dema. Javi Elorduiren eta Ramon Lauzirikaren zaldiek indarrak neurtuko dituzte. 22:00etan, Aiako probalekuan.

IKASTAROAK

■ Ekainaren 1ean, enpresa txiki eta autonomoen kudeaketari buruzko ikastaroa, Urola Kostako Udal elkarteak antolatuta. Langabezia dauden eta enpresa abian jarri nahi

**Gorreria aztergai**

Zaharren Babes Lekuak, Clini-Sord Vitalsordekin elkarlanean, gorreriari aurre hartzeko jardunaldia antolatu du ekainaren 3rako. Ondo entzuten ez duten lagunek, entzun bai baina behar bezala ulertzen ez dutenek edo gorreria duten ala ez ziurtatu nahi dutenek 18:30etik 19:30era bitartean agertu behar dute kultur etxera. Laguntza emateaz gain, zer egin dezaketen esango zaie

dutenentzat. Informazioa eta izen ematea: 943 89 08 08 (Eli). 09:30etik 13:30era, Urola Kostako Udal Elkarteko Zarauzko egoitzan.

■ Sanpedroak arte, euskara ikasi nahi duten etorkinentzat AISA 2

ikastaroa, Orioko Udaleko Euskara Batzordeak antolatuta. Iraupena: 60 ordu. Maila egokia duen eta AISA 1 egin ez duena ere onartuko da. 16:00etatik 18:00etara edo 18:30etik 20:30era, Orioko kultur etxean.

PODOLOGOA

■ Aian, ekainaren 6an. Ordua hartzeko udaletxean eman behar da izena. Tf: 943 13 11 44.

SILLO-BOLAK

■ Aian, ekainaren 9an. Zerbitzuaren inguruko informazioa jasotzeko Urkomera, 943 81 65 00ra deitu edo bertako Igorrekin hitz egin: 660 04 97 51.

TRASTE ZAHARRAK

■ Orion, ekainaren 10ean altzari zaharrak jasoko dituzte. Bezperan utzi behar dira eta nolakoak diren jakinarazi Udalean.

MAIATZA NATURAN

■ Maiatzaren 24an, erromeria, Herrio natur taldeak antolatuta. 11:00etan, Iturrarango lorategi botanikoan.
■ Maiatzaren 31n, Kukuuarri eguna: 11:00etan meza; 11:30ean Olaxkaren emanaldia; goizean, hamaiketako eta Orioko baserrietako sagardo dastaketa; 18:00ak arte, argazki rally-a.

BILERA

■ Ekainaren 5ean, Orioko futbol taldea kirol elkarteak ez ohiko eta ohiko bilerak. 19:00etan, Orioko kultur etxean.

AZOKA**Iragarkietarako txokoa**

Iragarri nahi duzun hori telefonoz (943 83 15 27) zein e-postaz bidali dezakezu: karkara@karkara.com. Merke asko, gainera, doa-ko zerbitzua baita gurea.

GALDUTAKOAK

■ Giltza sorta galdu nuen apirilaren 14an, plaza eta anbulatorioaren artean. Jaso duenak udaltzaingora eramatea edo 943 13 26 52ra deitzea eskertuko genuke.

■ Duela aste batzuk ordulari bat galdu nuen plazatik Aita Lertxundi kalera bitartean.

Lotus markakoa da eta niretzat balio handikoa. Bilatuz gero, dei ezazue, arren, 943 83 03 97ra.

■ Giltza sorta bat azaldu zen apirilaren bukaeran Aian. Larruzko giltzatak da. Jabeak Aiako kultur etxean jaso dezake.

ALOKAIRUA

■ Orion bizitzeko lekua alokairuan hartuko nuke, bakarrik ordaintzeko modukoa. Bestela, erdibana egiteko interesik baldin badu inork, elkarrekin bila

genezake: bizileku@gmail.com.

LAN ESKAINTZA

■ Emakume bat behar da uda honetan, goizez, 2 ume zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tf: 620 91 22 01.

LAN BILA

■ Ekitaldietako estrukturalak jartzen eta auto pilotuetako gidaritzan esperientzia dut eta lan bila nabil. Berehala hasteko. Tf: 634 872 383 (Alberto).

■ Familia edota edadetuak zainduko nituzke gau eta egun. Eskarmentua dut. Tf: 686 04 27 32.

■ Geriatrian titulatu naiz eta edadetuak, haurrak...

zainduko nituzke. Zainketan esperientzia dut eta badakit sukaldean.

Tf: 639 40 94 21.
■ Edozein lan hartuko nuke: 639 40 94 21.

EROSTEKO

■ 1.000 euro inguru balio dituen bigarren eskuko autoa erosiko nuke, lanerako. Tf: 666 913 176/ 679 859 243.

